



## LARRUAZALEAN ZEHARREKO NEFROLITOTOMIA ONDORENGO GOMENDIOAK

Larruazalean zeharreko nefrolitotomia prozedura kirurgiko bat da. Tresna bat (nefroskopia) giltzurrunean sartzen da, larruazalean zehar, eta, horri esker, giltzurruneko harriak zatitu eta/edo atera daitezke.

Ebakuntzaren ondoren, zunda bat jarri dizute, nefroskopia sartzeko erabilitako zulutik ateratzen dena. Alta eman aurretik, kendu egingo dizute zunda.

Altaren ondorengo gomendioak:

- Zunda izan duzun tokian, apositu bat izango duzu. Bustita edo zikina badago, aldatu. Ohikoa izaten da aurreneko 24-48 orduetan pixa ateratzea.
- Dutzatu ondoren, ondo lehortu zauria; horretarako, poliki ukitu, ez igurtzi.
- Ez egin mugimendu zakarrik eta ez jaso pisurik. Pixkanaka, egin ariketa gehiago.
- Edan 1,5 eta 2 litro likido, baldin eta kontraindikaziorik ez baduzu beste kausaren batengatik.
- Egunean behin tenperatura hartu; ahal izanez gero, arratsalde. 38° C baino gehiago badituzu, joan larrialdietako zerbitzura.

Joan osasun-zentrora eta hitz egin lehen mailako arretako erizainarekin, baldin eta:

- Giltzurrunetik ateratzen zen zunda sartzeko puntua gorrituta baldin badago eta/edo inguru horretan mina baduzu.
- Egun batzuen ondoren, oraindik ere odola baduzu pixan. Hasieran, normala da pixarekin batera odola izatea, eta, pixkana odola desagertzen joango da.
- Pixa oso arrea bada edo usain txarra badu.
- Min etengabea baduzu bizkarrean edo albo batean.

Alta-unean, barne-kateter bat baldin baduzu (alegia, J bikoitzeko kateter bat), hori zaintzeko gomendioen orri bat emango dizute.

Edozein argibide nahi izanez gero, deitu iezaguzue telefono honetara: 945007547 (AUOKK-Urologiako kontsulta).